



HEZKUNTZA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política y Coordinación
Universitaria

EBAZPENA, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2023-2024 ikasturtean, ikasleen nazioarte mailako mugikortasun-programak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate, unibertsitate mailako ikastetxe eta goi-mailako arte eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia ebazten duena.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 31ko Aginduaren bidez onartu ziren 2023-2024 ikasturtean ikasleen nazioarteko mugikortasun-programak dituzten eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitatei, unibertsitate mailako ikastetxeei eta, goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei zuzendutako dirulaguntzen arauak (2023ko azaroaren 24ko EHAA, 217. zk.).

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura, aginduaren 2. artikuluan ezartzen den bezala, 2.200.000 eurokoa da, eta bi atal edo modalitatetan banatzen da: 900.000 euro (A atala) Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) emandako laguntzak osatzeko; eta 1.300.000 euro (B atala) Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren laguntzarik gabeko egonaldietarako.

2024ko martxoaren 15eko, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuordearen Ebazpenaren bidez, dirulaguntza deialdiaren zenbatekoa 464.800 eurotan handitu zen; hain zuzen ere, deialdiaren guztizko zuzkidura 2.664.800 eurotan ezarri zen; honako banaketa honekin:

- 1.036.160 euroko aurrekontua ezartzen da Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) emandako laguntzak osatzeko.
- 1.628.640 euroko aurrekontua ezartzen da Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuaren (SEPIE) laguntzarik ez duten egonaldietarako.

Taula honetan dirulaguntzak eskatu dituzten unibertsitateak, unibertsitate mailako ikastetxeak eta, arte- eta kirol-irakaskuntzetako goi zentroak banakatzen dira, deialdiaren modalitate bakoitzaren zenbatekoak- eurotan- adieraziz, eskaeretan agertzen diren banakako datuak aztertu ondoren:

	Eskatutako A zenbatekoa (€)	Eskatutako B zenbatekoa (€)	Guztira (€)
UPV/EHU	607.590	765.180	1.372.770
Mondragon Unibertsitatea	152.330	414.960	567.290
Deustuko Unibertsitatea	256.150	411.450	667.600
Tecnun	8.380	31.980	40.360
IDarte	9.910	5.070	14.980
Musikene	1.800	0	1.800
GUZTIRA	1.036.160	1.628.640	2.664.800





Deialdiaren 10. artikuluko esleipen-prozeduraren arabera, dirulaguntza emango zaie deialdi-aginduan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakunde eskatzaile guztiei. Era berean, ezartzen da deialdiaren zuzkidura ez bada nahikoa eskaera guztiei atal bakoitzerako aurreikusitako zenbatekoetan erantzuteko, proiektu bakoitzari emandako zenbatekoa proiektu guztien artean dagoen zuzkidura hainbanatzearen emaitza izango dela.

Deialdiaren dirulaguntzaren zenbatekoa handitu ondoren, aurrekontu-zuzkidura nahikoa da bi ataletako eskabideen % 100 betetzeko.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainerako arauak bete direnez,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Ondoren adierazten diren dirulaguntzak ematea Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta ikasleak 2023-2024ko ikasturtean nazioartean mugitzeko programak dituzten unibertsitateei, unibertsitate mailako ikastetxeei eta arte- eta kirol-irakaskuntzetako goizentzoei:

	Eskatutako A zenbatekoa (€)	Eskatutako B zenbatekoa (€)	Guztira (€)
UPV/EHU	607.590	765.180	1.372.770
Mondragon Unibertsitatea	152.330	414.960	567.290
Deustuko Unibertsitatea	256.150	411.450	667.600
Tecnun	8.380	31.980	40.360
IDarte	9.910	5.070	14.980
Musikene	1.800	0	1.800
GUZTIRA	1.036.160	1.628.640	2.664.800

Bigarrena.- Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, V. tituluari, administrazio-bidean dauden egintzak berrikusteari buruzko II. kapituluari, administrazio-baliabideei buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria